# 1. PRESENTACIÓN

Cuando hace un año presentamos el primer número de esta publicación: *El valor de la palabra. Hitzaren balioa. Hacia la ciudadanía del siglo XXI. mendeko hiritartasunerantz*, señalamos el espíritu con el que nacía, en buena medida recogido en la cabecera de esta revista anual de pensamiento: una publicación que procura estar abierta a contenidos que ayuden a pensar y vivir (mejor) en una sociedad de ciudadanos.

*El valor de la palabra*, su ejercicio y defensa, fue uno de los argumentos que distinguieron a Fernando Buesa Blanco en su actividad como hombre político, así como ciudadano vasco.

*El valor de la palabra* quiere ser también uno de los ejes de la *Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa*, creada para el desarrollo y la promoción de la cultura de la paz, de la democracia y del progreso social.

De acuerdo con dicho principio: *el valor de la palabra*, se ha constituido este año, durante la gestación de este número, el Consejo de Redacción. Sus integrantes representan en sí la voluntad de pluralidad con la que se prepara esta publicación (la ficha técnica que abre estas páginas recoge la estructura y los miembros del Consejo editorial, de

# 1. AURKEZPENA

Duela urtebete aurkeztu genuen argitalpen honen lehenengo zenbakia: *El valor de la palabra. Hacia la ciudadanía del siglo XXI / Hitzaren balioa. XXI. mendeko hiritartasunerantz*. Han adierazi genuen zein espiriturekin jaio zen. Eta, neurri handi batean, pentsamenduaren urteroko aldizkari honen goiburuan jasota dago: hiritarren gizarte batean pentsatzen eta (hobeto) bizitzen lagunduko duten edukiei irekita egoten saiatzen den argitalpena.

*Hitzaren balioa* –hitza erabiltzea eta aldeztea– izan zen Fernando Buesa Blancoren bereizgarrietako bat, bai politika gizon gisa egin zuen jardueran, bai Euskadiko hiritar gisa.

*Hitzaren balioa*, orobat, bakearen, demokraziaren eta gizarte aurrerapenaren kultura sustatzeko asmoz sortutako *Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa*ren ardatzetako bat izatea nahi genuke.

Oinarri horri *–hitzaren balioa*-ri– jarraituz, aurten, zenbaki hau sortzeko prozesuan, Erredakzio Batzordea eratu da. Batzordeko kideek eurek argitalpen honek bere prestakuntzan duen aniztasuna adierazten dute (orri hauen hasierako fitxa teknikoan daude jasota Batzordearen egitura eta kideak;

procedencias heterogéneas y trayectorias valiosas).

. . .

El segundo enunciado de la cabecera: *Hacia la ciudadanía del siglo XXI. mendeko hiritartasunerantz,* ha marcado la orientación de los contenidos elaborados para este número.

El anterior, y primero, ya supuso una aproximación a la ciudadanía como uno de los ejes determinantes para la configuración de la sociedad contemporánea (consúltese el *Índice de contenidos* que figura en el cierre de estas páginas, con artículos de Javier Otaola, Javier Echeverría y Santiago de Pablo).

En este segundo número se profundiza en torno a la ciudadanía y a las condiciones necesarias para su ejercicio pleno. Los artículos de Xabier Aierdi, Xabier Etxeberria, Daniel Raventós y José María Rosales inciden en los aspectos conceptuales, políticos, socioeconómicos, éticos, educativos y asociativos de la ciudadanía. Estimamos que cada uno de estos cuatro textos supone una aportación de referencia para guiarse en el conocimiento y el debate sobre los fundamentos que definen una sociedad y proponen líneas de

askotariko jatorriak eta ibilbide baliotsuak dituzten kideak dira, ezbairik gabe).

. . .

Goiburuko bigarren adierazpenak *(Hacia la ciudadanía del siglo XXI / XXI. mendeko hiritartasunerantz)* zenbaki honetarako landutako edukien nondik norakoa markatu du.

Aurreko zenbakia, lehenengoa, dagoeneko hiritartasunera inguratu zen, gaur egungo gizartea eratzeko ardatz erabakigarri gisa (ikus orri hauen azkenean ageri den *edukien aurkibidea;* Javier Otaolaren, Javier Echeverríaren eta Santiago de Pabloren artikuluak ageri dira hor).

Bigarren zenbaki honetan, hiritartasunaren inguruan eta hiritartasunaz erabat baliatzeko behar diren baldintzen inguruan sakondu dugu. Xabier Aierdi, Xabier Etxeberria, Daniel Raventós eta José María Rosales egileen artikuluek hiritartasunaren kontzeptu, politika, gizarte, ekonomia, etika, hezkuntza eta elkarte alderdiei buruz dihardute. Gure ustez, lau testu horietako bakoitzak erreferentziazko ekarpena dakar, gizarte bat definitzen duten oinarriei buruzko jakintzen eta eztabaidaren nondik norakoak ulertzeko. Eta hiri-

intervención para conseguir la regeneración ciudadana.

En este bloque de artículos de desarrollo *entramos* a través de dos *textos-ventanas*: el texto de Xerardo Estévez (una *ventana* desde el espacio de la ciudad, el urbanismo y la arquitectura abierta) y el de Mario Onaindia (una *ventana* desde el espacio de los territorios –en ocasiones más que contaminados– de la política y la ideología).

Son *textos-prólogo* que darán paso a proyectos como el de *Frontera traspasada*, *viaje* de Gabi Martínez y Koldo Aginagalde hacia y con las palabras de *Bernardo Atxaga*, María Jesús Buxó, Victoria Camps, Iñaki Gabilondo, Luis Daniel Izpizua, Josep Ramoneda y Bashkim Shehu.

Tras estas *palabras* (*conversadas*) llegan las *palabras* (*escritas*) de Manuel Hierro, Felipe Juaristi y Bashkim Shehu. Los tres se aventuran literaria, que no banalmente, por la dignidad y sus manifestaciones en el empeño de vivir.

Las *palabras gráficas* de Txaro Arrázola y Xabin Egaña *se acercan* a continuación: son *palabras pictóricas* (morales y estéticas) que exploran y denuncian los entornos

tartasuna bere onera ekartzea lortzeko nola esku hartu proposatzen dute.

Garapeneko artikuluen bloke horretara, bi *leiho testu*-ren bidez sartzen gara: Xerardo Estévez-en (hiriaren, hirigintzaren eta arkitektura irekiaren espaziotik zabaldutako leihoa) eta Mario Onaindiarena (politikaren eta ideologiaren lurraldeetatik –batzuetan kutsatuak baino areago dauden lurraldeetatik– zabaldutako lehioa) testuen bidez, alegia.

*Hitzaurre testu* horien bidez, beste proiektu batzuk iritsi ahal izango ditugu, hala nola, *Muga gainditua* Gabi Martínezen eta Koldo Aginagalderen *bidaia*, *Bernardo Atxaga*, María Jesús Buxó, Victoria Camps, Iñaki Gabilondo, Luis Daniel Izpizua, Josep Ramoneda eta Bashkim Shehu egileen hitzetarantz eta hitzekin.

*Elkarrizketako hitz* horien atzetik, Manuel Hierro, Felipe Juaristi eta Bashkim Shehu egileen *hitz idatziak* datoz. Hirurak ere, literaturarekin, baina hutsalkeriarekin, duintasunean barneratzen dira, bao eta bizitzeko ahaleginean dituen adierazpideetan ere.

Txaro Arrazolaren eta Xabin Egañaren *hitz grafikoak* datoz ondoren: *hitz piktorikoak* dira (moralak eta

que incumplen los mínimos exigibles para la práctica de la ciudadanía.

La sección *En torno a Fernando Buesa Blanco* nos permite recuperar el espíritu de algunas de sus intervenciones. Nos basamos en la publicación editada por las Juntas Generales de Álava: *Nos queda la palabra...*

Bajo el epígrafe *Desde la Fundación* abordamos las acciones que han comportado la indagación, el análisis y el planteamiento de propuestas acerca de la ciudadanía y el reconocimiento de la memoria. Aludimos a las *Jornadas sobre el Estatuto de Autonomía del País Vasco*; a la ofrenda floral en el *II Aniversario* del asesinato de Fernando Buesa Blanco (con las intervenciones de Xesqui Castañer, Emilio Guevara, José Ramón Recalde y Javier Rojo); a *In memoriam* (con intervenciones como las de Gregorio Peces Barba o Elías Querejeta); a la presentación de la *Fundación* en Bilbao (con Jordi Solé Tura), o al *I Seminario Fernando Buesa Blanco* en los Cursos de Verano de la UPV-EHU (codirigido por Javier Otaola y Dionisio Gratal). La reseña de las publicaciones editadas cierra este capítulo. Se trata de los *Cuadernos de reflexiones sociales. El Estatuto*

estetikoak), eta hiritartasunaz baliatu ahal izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten inguruneak miatzen eta salatzen dituzte.

*Fernando Buesa Blancoren inguruan* hautapenaren bidez, haren hitzaldietako batzuen espiritua berreskuratzeko aukera daukagu. Arabako Biltzar Nagusien argitalpena hartu dugu oinarritzat: *Nos queda la palabra...*

*Fundaziotik* epigrafearen pean, hiritartasunari eta oroimenaren ezagutzari buruzko ikerketak, analisiak eta proposamenak ekarri dituzten ekintzei buruz arituko gara. Hor aipagai ditugu *Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzko jardunaldiak;* Fernando Buesa Blanco erail zutenekoaren *2. urteurreneko* lore eskaintza (Xesqui Castañerren, Emilio Guevararen, José Ramón Recalderen eta Javier Rojoren parte hartzeekin); *In memoriam* (Gregorio Peces Barbaren eta Elías Querejetaren parte hartzeekin, besteak beste); Fundazioak Bilbon izan zuen aurkezpena (Jordi Solé Turarekin); edota *Fernando Buesa Blanco I. Mintegia,* Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroetan (Javier Otaola eta Dionisio Gratal zuzendari zituela). Ateratako argitalpenen aipamenak ixten du kapitulu hori. Hauek dira: batetik, *Gizarte gogoetarako koadernoak: Euskadiko*

*de Autonomía del País Vasco*, y de la *Página Web*.

En el apartado *Otros espacios*, de acogida a experiencias e itinerarios que posean singular relevancia, la figura de Eduardo Chillida se muestra como la de un *buscador de encuentros*. El texto de José Ignacio Aranes recorre algunos de ellos. Sus *encuentros* pueden ser también un poco *nuestros*.

El último bloque, de carácter documental, nos ofrece la *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea*. Esta referencia no deja de ser otra *ventana* para actualizar las bases de la ciudadanía en el horizonte de la Convención sobre el Futuro de Europa.

. . .

Con estas *ventanas*, estimados lectores, nos gustaría que los contenidos de esta publicación pudieran servir para conocer y comprender mejor la realidad, y acercarnos con la palabra política, la palabra ética y la palabra estética *hacia la ciudadanía del siglo XXI*. En períodos como el que vivimos es cuando resulta especialmente necesario analizar los pasos recorridos, indagar el horizonte y *abrir vías* para el encuentro desde la dignidad ciudadana.

*Autonomia Estatutua*, eta, bestetik, *webgunea*.

*Beste espazio batzuk* atalean, garrantzi bereziko esperientziak eta ibilbideak jasotzen dira. Eduardo Txillidaren irudia azaltzen da, *elkarketen bilatzaile* gisa. José Ignacio Aranes-en testuak elkarketa horietako zenbait biltzen ditu. Haren *elkarketak* pixka bat *gureak* ere izan daitezke.

Dokumentu izaerakoa dugun azkeneko blokeak, berriz, *Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Karta* eskaintzen digu. Europaren Etorkizunari buruzko Konbentzioak zabaldutako ikuspegiak kontuan hartuta, hiritartasunaren oinarriak eguneratzeko beste *leiho* bat.

. . .

*Leiho* horiekin, irakurle estimatuok, argitalpen honen edukiak errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko balio izatea nahi genuke; hitz politikoarekin, hitz etikoarekin eta hitz estetikoarekin, *XXI. mendeko hiritartasunerantz* inguratu nahi genuke. Gu bizi garen aldi hau bezalakoetan, bereziki beharrezkoa da egindako pausoak aztertzea, etorkizuna ikertzea, eta hiritar duintasunez elkartzeko *bideak irekitzea*.

***El Valor De la Palabra***
***Hitzaren balioa***